


BALOREZKO PROPOSAMENA

Dakigunez, batxilergoa bukatuta edota goi-mailako gradua amaituta unibertsitatera joan nahi duten pertsonak arazo asko izaten dute etxebizitza aurkitzeko momentuan. Adibidez, logela bat aurkitzen dutenean eta jabearekin kontaktatzean, ikasleei alokatzeko aukera ez dagoela adierazten die. Kasu batzuetan, iraila ailegatzen da eta ikasle batzuek ez dute non lo egiterik. Beste aldetik, herrialdetik kanpo joan nahi dutenen ikasleek unibertsitatea aurkitzeko zailtasunak dituzte, baita hegaldiak eta etxebizitza aurkitzeko ere.



Ikasleon arazo hauek konpontzeko, gure aplikazioak erraztasunak eskainiko ditu logela aurkitzeko momentuan, aplikazioan etxebizitza beste pertsonekin partekatzeko aukera eta etxebizitzen jabeek logelak alokairuan jartzeko aukera eskainiko du. Era berean, diseinatuko dugun webgunea denbora aurreztuko du bezeroek etxebizitza bilatzeko momentuan, beste webguneek ez dutelako ikasleen atala desberdintzen eta ez dituzte haien interesak bilatzen. Jabeen eta bezeroen komunikazioa errazteko asmoz, linean egondako chat batekin iragarkiaren jabearekin komunikazio zuzena izango du bitartekaririk gabe. Beste aldetik, herrialdetik kanpo joan nahi dutenen ikasleei etxebizitza, unibertsitatea eta hegazkina aurkitzen lagunduko diegu laguntzaile birtual batekin kontaktatuz.

